



PRENTSA OHARRA: 2024.08.02

Euskal sortzaileak sei jaialdi eta antzokitan arituko dira abuztua eta irailean

- Hamar euskal konpainiak emanaldiak eskainiko dituzte Estatu, Frantzia, Alemania, Danimarka, Eskozia eta Kolonbian Etxepare Euskal Institutuaren laguntzarekin

Hamar euskal konpainiak nazioarteko izaera duten sei jaialdi eta antzokitan emanaldiak eskainiko dituzte abuztua eta irailean zehar euskal arte eszenikoen aberastasuna eta sormena erakutsiz. Lehenengo geldialdia **abuztuaren 1ean eta 2an** izango da **PASSAGE Festival** jaialdian, Helsingør-eko (Danimarka) nazioarteko kale antzerki jaialdian, **Barre Taldearen eta Rojo Telónen emanaldiekin**. Lehenengoek 'Nao-Now-Nau' aurkeztuko dute, zirku garaikideko ikuskizun moduan arrantzaleei eginiko omenaldia. Rojo Telón-ek berriz 'Transir' lana eramango du; eraldaketa, aldaketa, bizitza eta heriotzari buruzko lana.

Abuztuaren 6tik 11ra, Dance Basek, Eskoziako dantza zentro nazionalak, **Macarena Recuerda Shepherd-en** emanaldiak hartuko ditu **Edinburgoko Fringe** jaialdiaren baitan, munduko arte jaialdirik handiena. Etxepare Euskal Institutuak eta ADDEK (Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarte) egindako deialdi publikoaren bidez hautatutako euskal artista plastiko eta dantzari honek 'The Watching Machine' aurkeztuko du bertan. Ilusionismoari buruzko trilogia baten bigarren pieza da proposamen berritzaile hau. Lana argia eta itzalak ilusio optikoen bidez fikzionatzen diren instalazio txikiz osatuta dago.

Frantzian, Libourneko **Fest'Arts-ek** euskal artistak izango ditu berriro ere programazioan. 2012tik Euskadiko eta Nouvelle-Aquitaine eskualdeko kultur eragileen



arteko harremanak estutzeko eta mugaz gaindiko lankidetzaz bultzatzeko hitzarmena dute indarrean jaialdiak eta Etxepare Euskal Institutuak. **Abuztuaren 8tik 10era** egingo den 33. edizio honek **Lokke eta Qaballum** konpainien emanaldiak eskainiko ditu. Olatz de Andresek gidatutako taldeak 'Doppelgänger' aurkeztuko du, bikoitzaren eta denboraren eraldaketaren ideiarekin jolasten duen espazio ez-ohikoetarako prestatutako pieza ibiltaria. Bestetik, Qaballumek 'La medida que nos ha de dividir' erakutsiko du, etorkizuna irudikatzeko ariketa gisa sortzen den dantza ikuskizuna. Bi konpainiek abuztuaren 10ean aurkeztuko dituzte beren lanak.

Bi urtean behin, abuztuaren amaieran, Düsseldorf (Alemania) dantzaren munduko hiriburu bilakatzen da **Internationale Tanzmesse NRW** esker, dantza garaikideko topaketa profesionalik handiena. 1500 erakusketari biltzen ditu ekitaldiak, eta artisten aukerako programazioa eskaintzen du. Horien artean **Macarena Recuerda Shepherd** izango da bere lana zuzenean erakusteko aukera izango duen Estatuko konpainia bakarra. Abuztuaren 30ean 'AY! YA!' aurkeztuko du, irudien aniztasuna eta errealitatea aztertzeko ilusionismoa eta ikusmen-pertzepzioa erabiltzen dituen familiei zuzendutako pieza. Gainera, **abuztuaren 28tik 31ra** egingo den ekitaldi honetan euskal eszenako dozena bat profesional arituko dira lanean **Basque. Performing Arts. standean**, Etxepare Euskal Institutuko ordezkariekin batera.

Udako azken hitzordua Tarregako (Lleida) Firà de Teatre al Carrer azokarekin iritsiko da. **Irailaren 5etik 8ra** egingo da, eta **Mama Crea, Trapu Zaharra eta Maite Guevara** taldeen emanaldiak izango ikusgai. Mama Creak 'Desiderata' aurkeztuko du, burua eta gorputza zaintzeari buruz hausnartzera gonbidatzen gaituen instalazioa. Trapu Zaharrak 'Dale, Ramón!' ikuskizuna eskainiko du, umorea eta kritika soziala nahasten dituen lana. Eta Maite Guevarak 'Susto!' aurkeztuko du, prekarietate testuinguru batean beldurra eta biziraupena aztertzen dituen komedia lana.



Kolonbian ere bai

Europar egingo diren ekitaldiez gain, hainbat artistak Atlantikoa zeharkatuko dute Bogotan (Kolonbia), **Teatro Mayor Julio Mario Santo Domingo Antzokiko 'Ventana Vasca'-n ('Euskal Leihoa')**, parte hartzeko. Euskal Herriko sorkuntza artistikoa deskubritzeko aukera eskaintzen duen diziplina anitzeko programazio honetatik Kulunka Teatro, Kukai, Amaia Elizaran, Lumi, Sigma Project, La Dramática Errante edota Tanttaka Teatroa bezalako izenak pasa dira lehenago, besteak beste.

Uda honetan **Alos Quartetek** bere lan esanguratsuenak interpretatuko ditu 25 urteko ibilbide musikala ospatzeko **abuztuaren 8an** emango duen kontzertuan. **Led Silhouettek** berriz, 'Los perros' aurkeztuko du **irailaren 6an**, zaurgarritasun eta erresistentzia gaiak aztertuz.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura eta sorkuntza nazioartean proiektatzeko, eta horien bidez beste eskualde, herrialde eta kultura batzuekin harreman iraunkorrak eraikitzeko egiten du lan. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, eta kulturaren alorreko sortzaile, artista eta profesionalen mugikortasuna bultzatzen du. Euskal ikasketak ere bultzatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko eragileekin lankidetzak sustatzen du, bai kulturaren arloan, bai esparru akademikoan.

Euskal Leihok – 2024ko uda

1. Passage Festival 2024 (Helsingør, Danimarka)

Barre taldea, NAO-NOW-NAU

- Abuztuak 1, 13:00, Materielgården, Hestemøllestræde 10
- Abuztuak 1, 17:30, Materielgården, Hestemøllestræde 10



- Abuztuak 2, 13:00, Materielgården, Hestemøllestræde 10

Rojo Telón, 'Transir'

- Abuztuak 1, 14:30, Pladsen foran Kulturværftet
- Abuztuak 2, 12:00, Pladsen foran Kulturværftet
- Abuztuak 2, 16:00, Pladsen foran Kulturværftet

2. Dace Base | Edinburgh Fringe Festival 2024 (Edinburgo, Eskozia)

Macarena Recuerda, 'The Watching Machine'

- Abuztuaren 6tik 11ra. Egunero, 17:15ean Dance Base-en

3. Fest´Arts Libourne 2024 (Libourne, Frantzia)

Lokke, 'Doppelgänger'

- Abuztuak 10, 11:00, Mayson Byaa
- Abuztuak 10, 17:00, Le Parc de l'Épinette

Qaballum, 'La medida que nos ha de dividir'

- Abuztuak 10, 17.00, kaia
- Abuztuak 10, 19:00, kaia

4. Internationale Tanzmesse NRW 2024 (Düsseldorf, Alemania)

Macarena Recuerda Shepherd, 'AY!YA!'

- Abuztuak 30, 14:00, Tanzhaus nrw, Studio 5
- Abuztuak 30, 18:00, Tanzhaus nrw, Studio 5

5. Firà de Teatre al Carrer de Tàrrega 2024 (Lleida)



Mama Crea, 'Desiderata'

- Irailak 7, 11:00 eta 18:00, Espai Reguer
- Irailak 8, 11:00 eta 18:00, Espai Reguer

Trapu Zaharra, 'Dale, Ramón!'

- Irailak 6, 17:30, Espai Reguer
- Irailak 7, 12:00 eta 17:30, Espai Reguer

Maite Guevara, 'Susto!'

- Irailak 6, 22:30, Escola Vedruna - Pati
- Irailak 7, 14:30, Escola Vedruna - Pati

6. Teatro Mayor Julio Mario Santo Domingo (Bogota, Kolonbia)

Alor Quartet

- Abuztuak 8, 20:00, Teatro Estudio

Led Silhouette

- Irailak 6, 20:00, Teatro Estudio

Info+

Komunikazioa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus